


Orri pilpilean

Soraluzeko Hamabostekaria 96. alea 2004ko irailaren 24a



**Esperientziaren
eskola
sortzen**



**Tornileria-estanzakioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL industriak S.A.

Sagar Erreka, 19 45 PK

Telefona: 34 943 75 21 00

Faxa: 34 943 75 17 12

20590 SORALUZE

EUSKARA IKASTAROAK



**EUSKARAREN
PIPER ETA
GATZA**

Langabetu, guraso
eta ikasleek
matrikula erdia,
+
beka sistema
(udalaren laguntzaz)

Matrikula zabalik azaroaren 6rarte

- Euskalduntze orokorra.
- Adin eta maila guztientzat aukera ezin hobeia.
- E.G.A. eta hizkuntza eskakizunak.
- Eskeintza bereziak ikasle, guraso eta langabetuentzat.
- Gainera...
- Mendi irteerak.
- Barnetegiak.
- Irteera kulturalak.



"Guk euskaraz, zuk zergatik ez?"



A
m
a
i
a
e
t
a
p
u
r
i

Matriculate en
aek Euskaltegia

Frontoi kalea 5-2. erdiko
Maisuen etxea / casa de los maestros



Irrifar bat

JONE ARIZNABARRETA

Telebista nahiz irratia pizte-
az bat ehundaka berriren
jakitun gara egunero. Pun-
ta puntako teknologiak, aurkikuntza
berriak, dominak, istorio bitxiak,
uholdeak, leherketak, gerrak, gose-
ak, tifoia, heriotzak... Irudi gordi-
nak eta arazo larriak nagusi. Nega-
rra hemen, negarra hor eta negarra
han. Eta hau edozein hizkuntzatan
berdina omen; penak eta tristurak
mundu zabaleko bidaiariak baitira.
Gehienetan, urrunegiak eta haun-
diegiak iruditzen zaizkigu eta ez
gara ohartzen ez garela horietatik
salbu. Eta eskua luzatzen dugu, on-
dokoari laguntzeko, inguruan kon-
pondu ahal duguna konpontzeko,
eskua luzatzen dugu saminez dagoe-
na besarkatzeko eta pozik dagoena-
rekin alaitasun hori trukatzeko. Bai-
na batzuetan iruditzen zaigu keinu
hori ez dela nahikoa. Eta horrelako-
etan hausnarketa txikien ordua iris-
ten da. Zer gehiago egin dezakegu?
Agian beste keinu batzuk probatu...

Guk aurten egin dugu! Aspaldiko
ilusio bat beteaz, ezer gutxi duen
haur bati, gure etxearen epela eta
gure muxuak eskaini dizkiogu. Bi
hilabete eta zertxobait gehiagotan

zehir Siberiar neskatila baten kon-
painiaz gozatzeko aukera izan dugu.
Sei urteko neskatxa bizia, alaia, go-
xoa eta harriak baino gogorragoa.

Benetan esperientzia aberasga-
rria! Egunen eta orduen joan eto-
rrian, eta berari esker, gauza txikien
baloreaz asko ikasteko tarte ezinho-
bea izan dugu, sentimenduen eta
keinuen balioaz ohartzeko aukera.
Materialtasuna baino garrantzitsua-
goa den zerbait badela antzemateko
beta. Eta guzti hori, lehendik ere, ja-
kin bagenekien arren, praktikan jar-
daitekeela ikasi dugu. Eta emaitzak
bikainak dira. Aireportuan, lehen-
dabizikoz elkar ikusi genuenean,
irrifar goxo eta zabal bat eskaini zi-
gun eta horrela eskaini izan die no-
nahi eta edozeini hemen izan den
bitartean. Hain laburra, hain erreza
eta hain merkea den keinu soil ho-
rrek, ASKO balio du. Askok! Une oro
edonon eta edozeini, eskaini dakio-
keen oparirik ederrena da. Instant
bakar bat oroimenean betirako gor-
detzen duguna. BELDURRIK GABE
ESKAINI BEHARKO GENUKEEN
ALT XOR PREZIATUA. Bukatzeko
hemen doakizue nirea. Izan ongi eta
muxu bat!

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. udazkena
badator ate joka. Stop. eta gu be
bai!. Stop. (ez gara gutxiago izan-
go!). Stop. ihardunaldi antidesa-
rrollistak be bai. Stop. nahi dabe-
nandako gaurko gizartearen
norabidiaz hausnartu. Stop. izan-
go da zer entzun eta zer ikusi.
Stop. jende gutxi seguraski. Stop.
gizartiaren norabidiaren gaixa
gutxiengo baten interesekua da
itxuraz. Stop. bizikleta martxan
be antzerako gertatuko da. Stop.
interesa, benetako interesa gai
horretan. Stop. jua zan egue-
nian eta barikuan tripaz gora
zoiazan arrainak eukiko eben.
Stop. baina harek ez dauke hit-
zik. Stop. ez bizirik zerela eta ez
hilda gero. Stop. apenas kontura-
tu dan inor pasatu diranik be!.
Stop. Holaxe dago mundua!.
Stop. gure mundutxua!. Stop.
ondoko kolaborazioko eta kale
kantaleko esanak dira. Stop. bi
hosto eder. Stop. zoritxarrez,
Stop. pena da baina... Stop. argi-
taratu orduko. Stop. haiziak
eruango dittuanak gure gogoeta-
tik urrin. Stop. baina esperantza
badaukat. Stop. zeeze gelditzen
dala. Stop. gogoeta hondar bat.
Stop. sentsazio bat! .Stop. zer-
bait!. Stop. bai ezta?



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonoa 943 75 13 04
comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gu-
rutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz
Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko
Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta
Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabiñdo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen
eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du
euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

Erreportaia

*Deba Barreneko Garapen Eko-
nomikorako Elkartek, Debegesak,
Matia Fundazioaren laguntzarekin,
eskualdeko berrogeitahamar urte-
tik gorako pertsona langabetuei zu-
zendutako Debarreneko "Espe-
rientziaren Eskola" egitasmoa ja-
rriko du martxan datorren urria-
ren 19tik aurrera.*



Zorion agurrak



Ainara Azkoitia
Urriaren 9a
Zorionak neskato!!
Segi beti bezain
jator, alai, eta neska
fina izaten eeh.
Kuadrilakuen
partez.



Kristina Gallastegi
Urriaren 16a
Zorionak!!
Zenbat urte egin
dozku gure
Kristiguayk...!!?
Kuadrilakuen
partez.



Goyi Bidente
Irailaren 20an
Zorionak guapisima!!!
Badirudi zuretzat urteak
igarotzen ez direla!!! Beti
bezain atentu eta langile
jarrai dezazun, muxutxu bat
etxeko guztixen partez.



Josu Alvarez
Irailaren 9a
Zorionak!!!
Beti bezain alai eta
zintzo jarraitu.
Etxekuen partez.



Irati Perez Claver
Urriaren 2a
Zorionak pottola!!
Oso, oso ondo pasa
eta txintxo ibili.
Muxutxuak.
Etxekuen
partez.

BAZKARIAK

Gabolatz kalean jaiotakoan bazkaria

Urriaren 16an (14:30etan)
Txurruka Jatetxean
Izena emateko bertara deitu.

1959an Jaiotakoan Bazkaria

Azaroaren 6an
Txurruka Jatetxean
Izena emateko bertara deitu.
Azken eguna azaroaren 2a.

hildakoak

Victoria Artolazabal Aluziaga
Amalia Arana Agirre
Milagros Etxaniz Beitia
Jose Ayora Sanchez
Juana Perez Borrego
Maria Lazpita Zabala

ezkonduak

Oskar Arriola eta Ane Miren Irisarri

SEGIREN DEIALDIA

Soraluzeko SEGik "25 Urte eta segi aurrea" lemapean Durangon egingo den jaialdirako deia egin du.

14:30etan Herri Bazkaria izango da,
18:30etan Manifestaldi Nazionala, eta
21:00etan Su ta Gar, Las Vulpes eta La Kinky Beat taldeek joko dute.



IKASTAROAK

Begirale Titulua Debabarrenean

Ikastaroa urrian hasi eta maiatzean bukatuko da. Saioak larunbat goizez eta arratsalde izango dira Elgoibarren. Izena eman edo informazio gehiago jaso nahi izanez gero Udaleko Gazteria Zerbitzuan edo telefono zenbakia honetara deituz egin daiteke; 943 753043.

Debako Arte Eskola

Debako Arte Eskolak ondorengo kurtsuak eskaintzen ditu: harlanketa eta zurlanketa, zeramika, brontze galdaketa artistikoa eta grabatu kalkografikoa. Hauetaz gain, klase teoriko praktikokoak ere ematen dira, artearen historia eta forma eta kolorea. Informazio guztia www.debate.net web gunean

LEHIAKETAK

Ipuinak

Ereintza Kirol eta Kultur Elkarteak XXIII. "Erretereria Hiria" ipuin-lehiaketa antolatuta du. Parte-hartzaile bakoitzak 3tik 8ra folioko luzerako nahi beste ipuin aurkez ditzake. Bi modalitate: euskara eta gaztelania. 800 euroko sari nagusia eta 26 urtetik beherako onenarentzako 240 euroko sari berezia. Epea: urriak 31

Bidai interesgarriak

Arrasate, Bergara eta Oñatiko Gazteentzako Informazio Bulegoek "Gomendatzen dizut..." Saria antolatuta dute. Bertara oporrei, aterpetxeen inguruko gomendioei, hiri interesgarriei, deskontuetarako txartelen erabilerrari... buruzko idazlanak bidali beharko dira. Saria: EAEko Nekazal turismoko etxe batean bi pertsonentzako egonaldia. Epea: irailak 24

BESTELAKOAK

Informatikaria lan bila

Sistema informatikoen administratzaile ikasi duen pertsona lanerako eskeintzen da. 680237631

LAN ESKEINTZA

Pil-pilean Herri Aldizkariak aldi baterako KAZETARIA BEHAR DU

* Eskatzen da:
- Euskaraz idazten maila ona izatea.

* Kontuan hartuko da:
- Antzeko lanetan esperientzia izatea.
- Herriaren ezagupena.
- Baliagarritasuna.

* Eskaintzen da:
- Urtebeterako egun erdiko kontratua.
- Lan ordutegi askea.

Interesatuok bidali curriculuma [irailaren 24a baino lehen](mailto:irailaren24a@euskalnet.net), ondoko helbidera:

Pil-pilean Euskara Elkarte 27. postakutxa - 20590 SORALUZE
edo pilpilean@euskalnet.net Telef. 943751304



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa 943 75 18 91
Faxa 943 75 24 58
E - maila: etxehun@telex.es
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Zer irizten dotsazu?

“Mar adentro” Alejandro Amenabar zuzendariaren azken filmak, Ramon San Pedro galiziararren kasua ekarri digu gogora azken asteotan. Egoera larrian dauden gaixoez edo senideez, gaixoa noiz hil erabakitzeko duten zilegitasunaren inguruko eztabaida piztu da. Eutanasia zilegi den eta beraz, legez arautua behar duen ala ez da erabakitzeko dagoena.

Ze eritzi daukazu eutanasiaren inguruan?



**Jose Agustin
Jauntsarats
46 urte
jubilatua**

Pertsoniak erremediorik ez badauka eta berak erabakitzen badau, ni ados nago. Eta bera ez badago erabakitzeko moduan, ba bere senidiak egittia ondo ikusten dot.



**Izaskun Altube
31 urte
etxeakoandria**

Erabaki pertsonala da eta bakoitzak hartu bihar dau erabaki hori, neretzat aukeria egon bihar leuke. Gaixuak ezin badau erabaki ba bere senidiak hartu biharko leukie.



**Mari Gil
30 urte
dendaria**

Ni ados nago eta berak eskatzen badau batez be. Begetal moduan baldin badago ba orduan familiariak hartu bihar leuke erabakixa.



**Antonio Maria
54 urte
nekazaria**

Gaixuak eskatzen badau, ondo ikusten dot baina berak ezin badau erabakixa hartu, hor dago neretzat arazua. Nik ez dakit beste batek hartu leikien bere senidiagaitik erabaki hori.



**Julen Mendikute
17 urte
ikaslia**

Nik ondo ikusten dot, pertosna oso elabarrituta baldin badago eskubide osua dauka eskatzeko. Legalizatuta egon bihar li-tzake.



**Puri Salguero
55 urte
etxeakoandria**

Ni ez nago ados. Nere ustez, bizitza dagan bittartian ba itxaropena dago. Nik ez neuke legalizatuko.

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613



Jose Antonio S.L.
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 **SORALUZE** (Gipuzkoa)



Ihardunaldi antidesarrollistak

Desarrollismoarekin kezkatuta dauden hainbat lagunek, irailean eta urrian egingo diren Jardunaldi Antidesarrollistak antolatu dituzte Debabarrenean. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte, lehenengoa, eguaztenean egin zen Bergarako gaztetxean, Robert Redforden 'Un lugar llamado milagro' filmaren emanaldiarekin. Ostegunean, Ermuko liburutegi zaharrean, Herriak Bizirik taldeko kide batzuk Itoitzen inguruko bideo emanaldia eta solasaldia eskaini zuten. Hilaren 25erako (larunbata), mendi martxa antolatu dute, "Mutrikuko superportuaren eta Mutriku-Sasiola konekzioaren eragina ikusteko": 10.00etan Astigarrabian hasiko da (Labarioko bidegurutzetik 500 metrora) edo, bestela, 09.30etan Mendaroko autobus geltokian izango da hiztordua.

Hitzaldiak eta kontzertuak

Datorren astean, irailaren 28an (asteartea), Abiadura Haundiko Trenari buruzko hitzaldia emango da 19.30etatik aurrera Soraluzeko gaztetxean. Hilaren 29an (asteazkena), berriz, 19.30etan 'Mordisko del lobo' liburua-aren aurkezpena egingo dute Eibarko Tallarra gaztetxean. Hurrengo egunean, hilaren 30ean (osteguna), Deba bailarako lurralde egituraketari eta PTPei buruzko hitzaldia emango dute Soraluzeko gaztetxean. Urriaren 1ean (ostirala), 22.00etatik aurrera Gartxot eta Mantala no! abeslariaren emanaldia izango da da Eibarren. Eta hurrengo urriaren 2an, larunbata, Soraluzen beste kontzertu bat egingo da Sin oficio ni beneficio, Supercools eta J.A.N. taldeekin.

Higikortasun Iraunkorraren bizikleta martxa igandean

Aurreko urteotan bezela, Higikortasun Iraunkorraren Aste Europarra antolatu du Debegesak, 'Bizi kalitate hobeko herri eta hirien alde' leloarekin. Mendaroko jaialdia eta irailaren 22ko autorik gabeko egunaz gain, hilaren 26an, igandean, bizikleta ibilaldia egingo da eskualdean. Irteera Mallabian izango da 09.30etan, eta Mutrikura 12.00etan ailegatzea dago aurrikusita. Txirrindulariek honako bidetari jarraituko diote: Mallabia, Ermua (09.45), Eibar (10.00, Untzagan), Soraluze (10.05, Maltzagako rotondan), Elgoibar (10.20), Mendaro (10.45) eta Deba (11.20). Mutrikun amaituko da, eta han doako dutsak eta piskolabisa eskainiko dira. Nahi dutenentzat etxera bueltatzeko autobusa egongo da, eta bizikletak, berriz, furgonetan eramango dituzte.

Gutxien birziklatzen duen bailara Debabarrena

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazitako azken datuen arabera, zaborra %17 gehitu da Gipuzkoan azken bost urteotan. Birziklatzen den zabor kopurua ere hazi da baina zabor gutxiaren %25era ere ez da iristen Gipuzkoa mailan. Batez beste 472 kilo zabor sortzen zituen 2003an gipuzkoar bakoitzak, eguneko 1,29 kilo inguru. Eskualdeka begiratu ezker, Debagoiena da Gipuzkoan gehien birziklatzen duen eskualdea (%28,5) eta Debabarrena berriz gutxien birziklatzen duena (%14,9).

Papera izan zen gehien birziklatu zen zaborra; iaz, 22.500 tona paper birziklatu ziren Gipuzkoan. Horrekin batera, 18.000 tona beira, 7.500 tona kartoi eta ontzi arinen 6.000 tona birziklatu ziren.

Autopistako pieza jartzen

2003ko urtarrilaren 8an izandako istripuaren ostean, ia urte eta erdian gelditu egon eta gero, irailean ekin diote berriz A3 autopistako Larreategi zubibideko lanei.

800 Tonari eusteko ahalmena duen garabi batekin ari dira lanean. Orain ordea piezak zatika zatika jartzen ari dira eta datorren urteko otsailarako amaituta izango duten aurrikuspenean egin dute.



LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa

tf: 943752150
Faxa: 943752118

SORALUZE



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



Oscar Gabilondo.

Oscar Gabilondo da alkate berria

Azken asteotan aldaketa ugari izan dira Udaleko kargudunen eta hauen lan dedikazioen inguruan. Alberto Sodupe alkatearen ordezkaria hartu zuen Oscar Gabilondok eta lan horretan egun osoko dedikazioa eskeintzea onartu zuen Udal Batzarrak (EAJ+EA+PSEEn aldeko 7 boto eta AH eta PPren lau abstentzioekin) irailaren 16an. Horrekin batera, Iker Aldazabal Hirigintza eta Ingurumen zinegotziari Izartu egitasmoa garatzeko burutzen dituen teknikari lanak egiteko %75eko dedikazioa onartzea ere erabaki zuen Udalak. Azken erabaki honetan baina, ez zen Gobernu Taldearen eta

oposizioeko taldeen arteko inolako adostasunik izan eta AH eta PP ren aurkako lau boto jaso zituen eta PSEEn abstentzioa. Oposizioak "bi kargudun liberatuta izateak Soraluze moduko herri batendako suposatzen duten karga" salatu zuten. Gobernu taldeak liberazioak gaur egunean herrian dagoen lanari erantzuteko beharrezkoak direla argudiatu zuen.


Bestalde, Nerea Perezek (EA) bere zinegotzi kargua utzi du eta bere ordezkari, EAJ-EAren zerrendetan hurrengo postuan zetorren EAJko Jose Luis Badiola hautagaia izango da seguruenik zinegotzi kargua hartuko duena.

Arrainak hilzorian ibaian

Hainbat herritarrek salatu dutenaren arabera, joan zen egun iluntzean (irailaren 16an) eta hurrengo egunetan, hildako hainbat arrain agertu ziren ibaian; loinak... Udaltzaingoa jakinarazi digunez gertatzen zena jakin eta berehala deitu zuten larrialdietara. Hurrengo egunetan Foru Aldundiko ikuskatzaileak ere izan ziren.

Irailakoa ez da aurtengo Deba ibaian ixurketa kutsagarriak izan diren lehen aldia. Joan zen abuztuaren erdialdera, Elgoibarren ere agertu omen ziren hildako arrainak. Ordutik aurrera, ixurketa bat izan zela baieztatu zuten Foru Aldundiko ingurugiro ikuskatzaileek, nahiz eta ezin izan zuten ixurketaren jatorria zehaztu.

AEKko matrikula zabalik



Soraluzeko AEK Euskaltegia izena emateko epea zabalik da dagoeneko. Bertan, adin eta maila guztiendako Euskalduntze orokorra, E.G.A. eta hizkuntza eskakizunak eta ikasle, guraso eta langabetuendako eskeintza berezia izateaz gain, ikasturtean zehar, mendi irteera, barnetegi eta irteera kulturez gozatzeko aukera ere izango da. Guzti horri, matrikula egiteko Udalaren dirulaguntza gehitu behar zaio gainera.

Oraingo 10 ikasle berri eman dute izena euskaltegia eta aurtengo EGA ateratzeko taldea osatuko delakoan daude arduradunak. Aurtengo beste nobedadeetako bat, irakasle berriaren izango da.

Izena emateko epea urriaren 6rarte dago zabalik eta 943751434ra deituta egin dezakezue.

Autobusa Kilometroak 2004



kmk'04
ORIO + ZARAUTZ



IRTEERA ORDUA:

9:30etan Gilako Zubian.

BUELTARAKO ORDUA:

20:30etan Zarautzik

PREZIOA:

7 euro

IZEN EMATEA:

Arrano, Gila, Gaztelupe, Iratxo eta Pil-Pilean (Dirua izena ematerakoan ordaindu beharko da. Asteazkena da azken eguna.)

A-ni-ma zai-tez!
kekak baztertuuuu!

Bolia

taberna

Etxaburueta
Tel.: 943 75 11 04
20590 Soraluze



Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

Esperientziaren Eskola gurean

Deba Barreneko "Esperientziaren Eskola" urrian hasiko da. Eskualdeko berrogeitamar urtetik gorako lanik gabeko pertsonei zuzenduta dago eta izena emateko epea urriaren 8an amaituko da.

Deba Barreneko Garapen Ekonomikorako Elkarteak, Debegesak, Matia Fundazioaren laguntzarekin, eskualdeko berrogeitamar urtetik gorako pertsona langabetuei zuzendutako Debabarreneko "Esperientziaren Eskola" egitasmoa jarriko du martxan datorren urriaren 19tik aurrera. Hainbat jakintza gai landuz, zahartzaroak askotan ekartzen berekin dakarren pasibotasuna gainditu eta gizartean bere buruaren jabe izango den pertsona osatzea du helburu.

Garapen pertsonalerako elkargunea

Esperientziaren Eskola ez da berria Euskal Herrian. Donostia, Lasarte eta Goierriin ere garatu dira eskolak azken urteetan, "arrakasta haundiz". Idoia Uribarri Debegesako teknikariaren esanetan, eskola hauen helburua "elkartruke-rako gune ireki bat sortzea da, Debabarrenako pertsona nagusiak hezitzeko eta hauek beraien esperientzi ezberdinak elkartruka ditzaten". Besteak beste, "garapen pertsonala sustatu, errealtate soziala ulertzen lagundu eta 50 urte inguruko adin talde honek paper aktikoa, baliagarria eta onuragarria izan dezan gizartean eragiteko ahalmena eragitea" dira egitasmoaren helburu garrantzitsuenak. Horrekin batera, ikastaroa amaitu ostean, Eskualdeko Nagusien Kontseilu bat sortzeko asmoa ere badu Debegesak.

Eskola praktikoak

Eskolak Eibarko Unibetsitatean emango dira. Urriaren 19an hasi eta



Asko dira adinean aurrera doazen arren euren burua jakintzaz janzteko aukera aprobetxatzen dutenak. Argazkia, HHIko ikasleak 2003

Gustora daude, etxe berri eta garesti baten kostuari aurre egin beharrik gabe bizi ahal izateko bizileku duin bat dutelako.

ekainera bitartean, astearte, asteazken eta ostegunetan, 10:00etatik 13:00etara. Esperientziaren Eskolako ikasketa plana bi zatitan banatuko da. Hasteko, "Erlazio Sozialak", "Erlaxazioa", "Debabarreneko Kultura eta Tradizioak", "Filosofia", "Literatura", "Zuzenbidea", "Psikologia" eta "Artearen Historia" bezalako irakasgaiak eskainiko dira. Idoiak azaldu digunez,

irakasgaiak lantzeko era "oso praktikoa" izango da, ikasleek euren eritziak azaldu eta gaiak barneratzea lortu dezaten.

Gizartean eragitea helburu

Irakasgaien ondoren, ikasleek, derri-gorrezkoa izango den azken proiektu bat egin beharko dute talde lanean. Horretarako, boluntariotzan diharduten elkarte ezberdinen laguntza izango dute. Helburua, "ikasleak bere eguneroko bizitzan proiektu bat lantzeko tresnak garatzea da, gizartean eragiteko ahalmena izan dezan". Bestalde, Esperientziaren Eskolako beste ekintza osagarri batzuk ere eskeinitako omen ditu, "hitzaldiak, beste eskekin elkartrukeak, jardunaldiak, irteerak eta ikustaldi kulturalak" esaterako.

ARRANO
tabernia
"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

Telefona 75 24 09

kutxa
gizarte ekintza

Izen ematea udaletxean

Debabarreneko Esperientziaren Eskolan izena emateko epea urriaren 8an amaituko da eta inprimakiak udaletxean eskuratu daitezke. Matrikula osoak 150 euroko prezioa du baina zatika ordaintzeko aukera dauka hala egin nahi duenak. Dagoeneko 12 lagunek eman dute izena baina oraindik omen dago soraluzetarrik. Harreman berriak egin eta gizartean eragiten ikasi nahi duten soraluzetarrak aukera bikaina daukazue. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 820110 telefonora ere deitu dezakezue (Idoia Uribarri / Debegesa).



Ordizian Gueske Elkartea sortu zuten Esperientziaren Eskolan parte hartu zutenek.

ORDIZIAR EMAKUME BATEN ESPERIENTZIA

Paula Saizar ordiziarrek (69 urte) Ordiziako Esperientziaren Eskolako ikastaroetan parte hartu zuen orain hiru urte. Ikastaro hartan ibili ziren ikasleek Gueske Elkartea sortu zuten gero eta orain bertako kide da bera ere. Debabarrenean ere Esperientziaren Eskola sortu behar zutela jakin zuenean "poz handia" hartu zuen. Soraluzetarrak egitasmoan parte har dezaten animatzeko bere esperientzia kontatu digu.

Nola erabaki zenuen Esperientziaren Eskolan parte hartzea?

Oin hiru urte ikusi nuen Matia fundazioak Esperientziaren Eskola izeneko ikastaro bat antolatu zuela Ordizian. Erretiratura nengoen, eta gauza berriak ikastea gustatu izan zaidanez beti izena ematea erabaki nuen. Baneukan beldur pixkat hasieran baina laster joan zitzaidan.

"Alabak etxetik joan zirenean hutsune handia sentitu nuen eta ez nekien nondik jo. Esperientziaren eskolan lagun berri asko ezagutu dut eta orain egiteko gauza asko daukat buruan."

Zer eman dizu eskolan parte hartzeak?

Ni banandua naiz eta alabak hazteko gogor lan egin behar izan dut. Alabak etxetik joan zirenean hutsune handia sentitu nuen eta ez nekien zer egin. Esperientziaren Eskolan lagun berri

asko egin ditut eta orain, egiteko gauza asko dauzkat buruan. Nagusitzen garenean gizartetik baztertzeko joera daukagu baina guk ere badugu zer esana eta gure esperientzia gazteekin elkarbanatu behar dugu.

Zertarako sortu zenuten Gueske Elkartea?

Esperientziaren Eskolan hasitako bidetara jarraipena emateko sortu genuen. Bazkari bat egin eta bertan erabaki genuen. Batzuk boluntariorlan lan egiten dugu eta hamaika egitasmo dauzkagu eskuartean. Guk Ordizi inguruko ibilbide gida bat prestatu dugu esaterako, beste batzuk alargunei laguntzeko topagune bat sortu dute eta abar. Berrogei bat lagun gara elkartearen eta ihaz jardunaldi batzuk antolatu genituen geuretako. Oso aberasgarria da eta soraluzetarrak ere animatzen ditut parte hartzera.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak

Santa Ana, 20 Behea
Tfnoa: 943 75 12 41
Sakeleko tfnoa: 639 17 96 96



Burdina Astintzen 2004



Burdina Astintzen 2004 izenburupean eta Euskal Herriko metal mugimenduak antolatuta (www.herriko-burdina.cjb.net), metal musika jotzen duten sei talderen emanaldia izango da gaur gauean Soraluzeko Gaztetxean. Legen Beltza (thrash metal), Kondaira (black/death paganoa), Odd Heatthenish (thrash/death), Biok (metal-core),

Galb O'Roth (heavy metal) eta Sorgerth (black metal melodikoa) taldeak joko dute gaueko 21:30etatik aurrera. Jaialdi honen helburua, euskal metal talde gazteei bultzadaxo bat ematea da, eta aldi berean, HB diskarako (Herriko Burdina) dirua biltzea. Kontzerturako sarrera 5 eurokoa izango da.

Bertso eskolarako izen ematea

Urtebeteko lozorro modukoaren ostean, Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolak ibilbide berri bati ekingo dio urrian hasiko den ikasturtearekin. Bi irakasle izango dira aurtengo ikasturtean eskolak emateaz arduratuko direnak; Egoitz Unamuno eta Eneko Beretxinaga. Irakasleok esan digutenez, joan zen ikasturtea bertso eskolaren norabideaz hausnartu eta urteko programa prestatzen igaro dute "nahiz eta, eskolaz kanpoko hainbat ekintza egin eta bertsoari zuzeneko hainbat topaketetan ere parte hartu, eta lokala pintatu eta egokitu dogun". Irakasleek gain beste hainbat lagunek osatzen dute bertso eskola eta aurtengoan nagusien eta gazte-txoen taldeak osatzeko asmoa dute. Nagusien taldean (16 urtetik gorakoa) dagoeneko 10 bat lagunek eman dute izena eta hil honen 30ean aforiarekin batera egingo dute lehen eskola. Gaztetxoek berriz datorren astetik



Azkenengo eskolarteko txapelketara egin-dako irteera. Eskoriatzako Almen eskolan.

aurrera izango dute bertso eskolan izena emateko aukera eta ondoren adostuko ditute eskola ordutegiak.

Trikitixa eskola urrian



Trikitixa eskolak urrian helduko ikasturte berriari. Dagoeneko lau gaztetxok eman dute izena baina eskolak hasi aurretik, egun batzuetako epea izango dute izena eman nahi duten neska mutiko guztiek (617609235 (Iruñe) mugikorrera deituta eman daiteke izena). Urriaren hasierako egunetan izena eman duten guztiekin egingo den bileran erabakiko da eskolaren ordutegia.

Jakina den bezala, dantza sueltoko eskolak Urrats Dantza Taldeak Ezoziko Etorbidean duen egoitzan emango ditu Iruñe Ariznabarretak.

157 Ikasle musika eskolan

Soraluzeko Musika Eskolak 157 ikasle (eta 221 matrikula) izango ditu 2004-05 ikasturtean, joan zen ikasturtean baino 22 ikasle gehiagorekin. Eskolako Zuzendaritzak adierazi digutenez, "azken urtietan herrixan jaiotza gehixago izan da eta hori gaztetxuetan igarri da". Gainontzean oso gustora daude lortutako ikasle kopuruarekin. Zenbait instrumentu ikasteko plazak bete egin dira baina oraindik ere badaude plazak beste instrumentu batzuetan; bateria (aurtengo berrikuntza 14 urtetik gorakoendako), klarineta, tronpeta, tronboia, saxoa, txistua eta tanborila, soinua, trikitixa, panderoa eta helikioia. Hizkuntza musikala ikasi eta musika tailerrean parte hartzeko aukera ere badago. Aurtengo ikasturtea gainera berezia izango da musika eskolarentzat, aurten beteko duelako 15. urteurrena. Hori ospatzeko ekitaldi bereziak antolatuko dituzte Santa Zetilia egun ingururako.



Gogortuz
fisioterapia Zentrua

Oier Oregi Unamuno

943 75 00 22

TXOKO
KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behe, telf: 943751789



Juan Alonso eta Eustasia Martin senar emazteak Itxaropena elkartean.

Jubilatuendako bidaiak

“Neri Benidorm gustatu izan jata gehixen!”

Askorendako amaitu dira udako oporrak. Beste asko baina, udaberrian oporretara nora joango diren jakiteko zain daude, jubilatuak.

Halaxe daude Eustasia Martin (69 urte) eta Juan Alonso (69 baita) senar emazteak ere, urrian jasoko duten erantzunaren zai. Ez da Inersorekin bidaiatuko duten lehenengo aldia izango, zazpigarrena baino. Eustasiarekin berba egin dugu orainarteko bidaietako esperientziez eta nahikoa barre egin dugu. Umoretsua da oso eta daukanarekin zoriontsu denaren dizdira dauka begietan. Argazkirako urreratu du gizona.

Nora juan izan zarete bidaian?

Palmara bost aldiz eta Benidormera behin. Juan zan urtian Peñiscolara tokatu jakun baina gizona gaixorik zan eta ezin izan ginan juan. Aurten ez dakit nora juango garan zeurrrian helduko jaku orrixa, gero otsail inguruan juateko.

Ze toki gustatu jatzue gehixen?

Benidorm gehixen. Ni aspertuta nago Palmakin. Baina gizonari gehixago gus-tatzen jako Palma, komunak hondartzan bertan darelako errepidia pasatu barik.

Zer egiten dozue han?

Pasiatu, kartetan egin, dantzan egin... ja, ja, ja! Pizsinara be juan leike edo gimnasia egitera goizetan... gauza asko. Eta jokuak bebai! Bingua eta...

Jente asko ezagutzen da, Bilbokuak eta Donostiakuak bazkalosteko kafetxua hartzen.

“Nere koinata bat alargundu eta Benidormen maitemindu zan berrriro!”

Dantzan be asko egitten ei da...

Gizonak ez, lehen dantzarin bat zan baina oin ezin dau. Nik egitten dot, emakumiekin eta gizona formala bada, baita! Ja, ja, ja!

Eta ligatu dabenen bat ezagutu dozu?

Bai. Nere koinata bat alargundu eta Benidormen maitemindu zan berrriro. Gertatzen dira holakuak be.

Inersotik juanda merke xamar urtetzen dau biajiak ezta?

Merketxuago urtetzen dau baina bes-tela juanda be ez da askoz gehixago urtetzen. Hemen geizki daguana da, lehenengo Donostiara juan biharra eta gero berriz Bilbora. Oin abioian gustora juaten naiz, eutuan baino tankilago.

Ta hola bereziki kontatzeko modukorik?

Palmara azken aldiz juan nintzanian ixa kapitaleraño juaten nintzan pasiu-an

eta erregia beraneatzen egoten dan leku-tik egunian berrogeimila aldiz pasatzen nintzan. Ja, ja, ja! Etxiak ikusten dira baina berak ez! Burdinezko ate haundi bat dauke inor ez sartzeko!

“Azkenengo hotela izan zan txarrena. Bistarik bareko gela bat emon zoskuen (...) Beste leku danetan ondo egon izan gara.”

Arazorik euki izan dozue?

Azkenengo egon ginan hotela izan zan txarrena. Bistarik bareko gela bat emon zoskuen, erropak eseteko tendere-terik barekua. Eurengana juan nintzan eta esan notsen; “domekarako ez bados-kuzue gela berri bat emoten, erropa bus-tixak hartu eta ura darixola errezeptziño-ra etorriko naiz!”. Egun berdinian itsaso-ra begira zeguan gela bat emon zoskuen. Beste lekuetan oso ondo egon izan gara.

Noiz arte jarraitu bihar dozue juaten?

Ondo garen bittartian. Ni oindio ondo nabil baina nagusiago juaten dan jentia badago; bat alde batera okertuta bestia... ja, ja, ja! Ni hola ez noia eh! Bas-toia hartzen dotenian etxe inguruan gel-dittuko naiz.

Herriko kirol egoerari buelta ematen

Joan zen urtarriletik dihardu Aduna Badiola Ondarrutarrak kirol koordinatzaile moduan Sorluzen. Hasieran sei hilebeterako kontratatuarekin hasi zen baina orain beste urte t'erdiz luzatu dio kontratua Udalak. Gogotsu dabil baina badauka nahikoa lan kirol arloan urteetan izan den utzikeriaren ondorioei buelta ematen.

Ze lanetan ibili zara urtarriletik hona?

Hasiera baten lanik gehixen eskola kirolakin euki neban, maiatzerarte. Gero ekainian eta uztailian Uda Programa antolatu genduan. Oin 2004-2005 ikasturterako programa prestatzen dihardugu eta ia datorren asterako umie banatzen dotsaguzen eskuorriak.

Bestelako ze lan egitten dozu?

Herriko kirol taldiri urteko dirulaguntzak emon... Aurten saiatzen ari gara aurrez programa bat eta urtia amaitutakuan memoria bat jasotzen, bakoitzak egitten dabenan berri hobeto jakitzeko. Eta horrez gainera kiroldegixari ia itxura emoten dotsagun...

Zein da kiroldegixaren arazorik haundixena?

Urte askotan itxita egon dala. Edo nahiz eta zabalik egon, aparte moduan egon dala. Eta oin ba ez da erreza ikusi araztia Udalar hor inbertsio asko egin bihar dala. Oin bizikleta berri batzuk be ekarri dira eta gimnasioa haunditu eta skuash gela bat aerobikerako egokitze-ko asmotan gabitz...

Baina jente asko kanpora juaten da oindio.

Ulertzen dot, jente asko ez juatia. Ze egon dan moduan egonda eta oin daguan moduan egonda, ba autua hartu eta hamar minutuan gauza asko dittuzu. Eta zaila da kanpuan gustora dagan jentia berriz hona ekartzia, baina saiatuko gara zerbitzua hobetzen eta jentia berriz erakartzen. Gauzak poliki doiaz baina jentia gero eta gustorago dago.

Orokorrian sorluzetarrak zela ikusten dittuzu kirolian?



Aduna gimnasioko bizikleta berrietako baten gainean. Berrikuntza gehiago izango dira gimnasioan.

Ondo baina hutsune bat ikusten dot. Umiak igeriketan edo eskola kirolian egitten dabe, 40-50 urtetik gorak be ikusten dira igerilekuan edo gimnasia egiten, baina nere ustez 18-35 urteko tarte horretan badago hutsune bat. Ez dakit zergaitik dan. Igual izango da sasoi horretako jentia kiroldegixa itxita egon dan tarte horretan kanpora jo dabelako.

Eta Kirola Euskaraz egitten da?

Tira... Eskola kirolian ahalegin berezi bat egitten dogu baina hortik kanpo dexte entzuten da erderaz. Ni Ondarrutarra naiz eta pixkat harrittu egiten naiz batzutan baina egia esateko euskeraz egitten dabenak beti egitten dau euskeraz. Kirol zerbitzuak euskalduntzeko plana be hor dago eta betetzeko pausuak emoten hasiko gara.

26 Lagun Pala Txapelketan

Aurten ere antolatu dute Emakumeendako Pala Txapelketa. Bigarren aldia izango da txapelketa hau antolatzaren dena eta aurtengoan 26 emakumen eman dute izena. Zozketa bidez bikoteak osatu ostean, urriaren bian jokatu dute lehenengo kanporaketa San Andresen.

Laskurain oneratzan

Uda frontoietatik kanpo pasatu Laskurainek. Eskuetako minagatik ebakuntza egin eta min ematen zion garitxua atera zioten. Orain entrenatzen ari da berriz eta aste batzuk barru berriz jokatzeko moduan izango dela adierazi digu.

EMAITZAK

Futbola

-irailaren 18-19-

Segura 0 - SORALUZE 0 (Erre.)

Bergara 6 - SORALUZE 0 (Juben.)

Atsedena (Kadet.)

Esku pilota

Iñaki Jauregi

- Irailaren 22an -

22-9 irabazi Aginagako Txapelketako Final laurdenekoan Zaballarekin.

Aitor Atxotegi

Interclub Txapelketan

22-9 galdu zuen Azkoitian.

AGENDA

Futbola,

SORALUZE - Elgoibar (Erreg.)

Bergara - SORALUZE (Juben.)

Segura - SORALUZE (Kadet.)

Esku pilota,

Iñaki Jauregi

- Irailaren 24an -

Interclub Txapelketa Añorgan

- Irailaren 25ean -

Oñatiko Txapelketako semifinala

- Irailaren 27an -

Aginagako semifinala

- Urriaren 1ean -

DV Txapelketako partidua Lezon

OITXURRI
ARDAU-DENDA

Gabolatz Kalea, 28
20590 SORALUZE

☎ 605 768 151 (Naiara)
☎ 667 479 350 (Roberto)

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



Aitziber Aldazabal

“Oin ez dago baserritik bizitzerik!”

Guraso gehixenendako iraila burukominen hilabetia izaten ei da. Aitziberrek oindio ez dauka halako burukominik (irailetan bereziki haunditzen danik behintzat. Bere seme Urko txikixa da oindio. Ama gehixeneri moduan, bizitzia zihero aldatu jako umia euki zebanetik; baina ez dauka damurik. Jende gehixena baserritik kalera badoia be Aitziberrek bestera egittia erabaki dau. Urko moduko kimu barrixekin seguru gare baserri munduak aurrera jarraituko dabela.

Izen-abizenak, edadia eta lanbidea.

Aitziber Aldazabal naiz, 27 urte dittut eta zaharrak zaintzen egitten dot lan.

Oporrak zelan igaro dittuzu?

Umiakin ez dago gauza asko egitteko aukerarik, egunero-egunero mantendu bihar dozu martxia.

Soraluzeko alkatesia bazina, zer aldatu edo egingo zenduke herrixan?

Umiendako ganorazko parkeren bat jarriko neuke, ez dago eta nora jua. Baserrixerri be laguntza gehixago eskeiniko notseke, lehendik jasotzen dan apurra kentzen dabiz eta.

Baserrixen liburuan gainian zer iritzi daukazu?

Oso politta, neri behintzat asko gustatu jatan.

Zuk zeuk zer egingo zenduke baserri mundua bultzatzeko?

Oin ez dago baserrittikan bizitzerik; ezin da dirurik etara eta, horregaittik, jotzen da kalera. Laguntza gehixago emon biharko lirakez agintarixen partetik.

Baserrittarra ala kaletarra?

Baserrittarra, gaitera oin bertara goiaz bizitzera.

Zeinekin, nora eta zetara.

Gizonakin; kostako herri batera, Getarixara adibidez; afaltzera ume barik, eta nahi dogunian etxeratzeko moduan.

Udazkena...

Hostuak jausten dira, freskuria, jertsia jantzi biharra, goiz iluntzen dau eta ezin leike kalia gabeko hamarrak arte trankil egon.

Zahar-zaintzen lan egittia gogorra al da?

Nik ordu gutxi egitten dot eta zaintzen biharrian garbitzen. Gogorra da, baina



Aitziber Aldazabal

pertsonia egin egitten da.

Ze iritzi daukazu erresidentzien gainian?

Zaharrendako tristia da, eskinan jarri eta han lagatzen dittue denboria pasatzen; hori ez da bizimodua. Batzuk edadiakin burugogor jartzen dira eta ez dabe laguntzen lagatzen, horregaittik, uste dot, eruaten dittuela halako tokixetara.

Bertso Begiz

*Baserritarrak baserrirako
gogoa du barrenean,
ta sarri dago harako gogoz
kalean dagoenean.
Orain Aldason bizimodua
egiten duzuenean,
beti izango da udaberria
Urkoren aldemenean.*

Neko

(Doinua: Haizak hi mutil mainontzi)

Ama egin zaranetik zer da zure bizitzan gehixen aldatu dana?

Denbora guztia umiari eskeini bihar jako. Ez daukazu ezta egun erdi be zuretzat, beti umian gainian egon biharra dago.

Baina oso politta da eta ez neuke ezer-gaittik be aldatuko. Gainera nere umia oso ona da. Damutzen naiz lehenago ez euki izana.

Mendata taberna



Berezitasunak:
*Txipirolak, Barazki
Menestra, Gixauak...*
Asteburuan plater
konbinatuak
*Enkarguak etxerako
(baskariak eta afariak)*

Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

**GAZTELUPE
taberna**

tel: 943 75 20 81



Argazki zaharra



1940ko Maristetakoa

Argazkixan Maristena moduan eza-
gutzen zan eskolako ikasle batzuk
azaltzen dira, 1940 urte inguruan
etarakua da argazkixa. Goixan, ezkerre-
tik eskumara; Juan Cruz Carvallo (+),
Jesus M^a Oregi, Jon Izagirre, Anton
Peñalba (+), Timoteo Urizar (+).
Beheian; Luis M^a Bolunburu, Ramon
M^a Mugica, Javier Galarraga, Alberto
Churruca (+).

Emilitak lagatako argazkia.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer
soberan honetan?

***Bi lagunendako
afari mundial bat
irabazi zeinke!!***

DEITTU

943 75 13 04 ra

Aurreko aleko erantzuna:
Olabarrego etxia

...eta irabazlia: Soraia Oruesagasti

***Aurreko
alean...***



EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

**Kontulan
Aholkularitza S.L.**

**Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua




Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022



**Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak**

Ordutegia:
(goizez) 07:45etik 12:30etara
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara



OITXURRI

tel. 605768151
GABOLATZ
28 BEHEA

**ardorik onenak
OITXURRIRENak!**

urteko ardoak - 2 € tik aurrera
Balagu
Basoco
mitarte
f. fdez gomez



kriantzak - 4,50 € tik aurrera
h. de don tomas
solaguen
valserrano
pierola

erreserbak - 9,50 € tik aurrera
valserrano
solaguen
pierola





Ia 100 urte zure segurtasuna zaintzen

Zure segurtasuna poz-iturri izan dezazula lortzen laguntzea da gure helburua.

Eta, zugandik hurbilago egoteko, datorren urriarren

1ean, Agentzia berri bat irekiko dugu Soraluzen:

K/ Santa Ana, 13, 1

T/ 943 751 457

Agentea: Loli Nieves

Erregistro-zenbakia: 25.123



Eta gainera, zuregandik hurbil hemen ere:

Azpeitia Agentzia : K/ Pablo VI. T/ 943 151 649

Urretxu Agentzia: K/ Areizaga, 3. T/ 943 722 599

Eibar Agentzia: K/ San Juan, 5, 5-1ª . T/ 943 206 48

Elgoibar Agentzia: K/ Jasoro Plaza, 1. T/ 943 742 69

Deba Agentzia: K/ Ondartza, 2. T/ 943 192 127

Zestona Agentzia: K/ San Juan, 10. T/ 943 897 101

Ezagutu gaitzazu. Behar duzun aseguruia dugu, eta zerbitzurik onena zure lasaitasunerako



Mutua General de Seguros

ETORKIZUNEKO KONPROMISOA

EZOZIA JATETXEA

Zatoz eta gozatu
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk
ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua
eta aukera zabala kartara.

Ezozia Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE